Kolibribidaiagentzia@gmail.com
Tlf: 943 67 89 01
PLAZA DE LA CONCEPCION, 2 - BJ,
10003, Caceres (Cáceres)

## ***OINARRIZKO BALIABIDEAK***

Gure produktu/zerbitzua saltzeko hainbat beharrezko elementu edo detaile behar ditugu; Nik zerbitzu hau eskaintzen hasteko hainbat gauza behar ditut, agentzia leku zentriko eta eroso batean kokatuta egotea horrela handik pasatzen direnek begirada bat botatzeko. Estetikoki agentziaren itxura erakargarria izan behar du, hau da, deskontuak eta bidaiak prezio honetan jartzea. Langileak ere beharrezkoak dira gauzetaz arduratzeko (maskotaren zainketarako, monitoreak norbaitek ezin badu soilik bere kabuz oporretara joan, bidaiak antolatzeko, agentziaren web-a, sare sozialak, eta egiten diren publizitate kanpainiak edo iragarkietaz arduratzeko…) Jarduera hauetaz arduratzeko, pertsona bakoitzak bere ikasketak eta formakuntza egokia edukitzea ezinbestekoa da.




Agentziako materiala ordenagailuak, mahiak, aulkiak, bidai folletoak, inprimagailua, bezeroak itxaro dezaten itxaro-logela bat… nik erosi beharko ditudan gauzak dira. Adibidez langilean lortzeko nire inguruko jendeari galdetuko nioke ea ezagutzen duen norbait lanpostu hauek betetzeko gaitasunekin eta lana behar duena. Ez banu iñor aurkituko, kartelak jarriko nituen kaleetan horrela jendea erakartzeko.



Gure hornitzaile garrantzitsuenak taldeak dira, ekintza gehien direlako dituztenak premian. Beraien bidai motengatik hainbat enpresekin aliatzen gara eta horren enpresaren hazkundea suposatzen du. Taldeekin edukitzen ditugu diru sarrera gehienak pertsona kopuru handia izaten direlako.
Gure zerbitzua ematerakoan asko gehienbat influeziatzen dutenak hornitzaileak dira, beraien azkeneko erabaki aldaketak. Hornitzaileek gure zerbitzua “erosten” badute

eta dena prestatuta dagoenean zerbitzua deuseztatzen badute, nahiz eta hasiera batean bidaia prestatzeko diru kopuru bat eman hornitzaileak bidaia egiteagatik edukiko genituen diru sarrerak galtzen ditugu, denbora eta dirua.




Hasiera batetik inbertitzaileak edukiko ditugu hasieratik nahi dugulako gure enpresa haztea eta ezaguna bihurtzea. Inbertitzaileek diru kopuru bat jarriko dute eta guk diru sarrera nahikoak ditugunean inbertitzaileei dirua itzultzeko modukoak adostutako diru kopurua itzuliko diegu. Inbertitzaileek emandako diru kopuruaren arabera interes gutxiago edo gehiago egongo dira; diru kopuru handi batekin interes altuak eta diru kopuru txiki batekin interes txikiak.

Hasiera batean bankuari mailegu bat eskatu beharko ditugu, enpresa 0-tik hasiko garelako eta nahiz eta inbertitzaileak eduki enpresa bat sortzeko diru gehiago beharko dugu. Eskatuko dugun mailegua 100.000€-koa da lokala erosi behar dugulako eta dena ondo prestatu zerbitzu hoberena eskeintzeko bezeroei. Kantitate hori eskatuta 200.000€ itzuli beharko genioke bankuari interesengatik.